



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO
	ITUNDUA
	FRANQUEO
	CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2016ko EKAINA - 175. zenbakia

Munduko kantu inprobisatuak, Donostian

Uztailaren 11tik 16ra Europa bat-batean Kantu Inprobisatuaren Nazioarteko Topaketa ospatuko da Donostian. Goizean jardunaldi akademikoak eskainiko dira eta arratsaldean emanaldiak. Amaitzeko, jaialdi handia izango da Kursaal.

Munduko zazpi kantu inprobisatu ezberdin entzuteko eta beste hainbat ezagutzeko parada izango dugu uztailaren 11tik 16ra Donostian, *Europa bat-batean* egitasmoaren baitan. Jardunaldi akademikoak eta emanaldiek osatzen dute topaketa; gainera, 2003ko *Ahozko Inprobisazioa Munduan* topaketari jaialdi handi batekin eman zitzaion amaiera, eta 2016ko *Europa bat-batean* ere hala biribilduko du egitasmoa.

Kursaal izango da azken hitzordu hori uztailaren 16an 19:00etatik aurrera. Aste guztian topaketan parte hartu duten inprobisatzaileak ariko dira bertan: Austriako, Galeseko, Katalan Herrietako, Kubako, Mexikoko eta Zipreko ordezkariak izango dira oholza gainean, Euskal Herriko bertsolariekin batera. Sarrerak 15 euroren truke eskura daitezke www.bertsosarrerak.eus atarian, eta egunean bertan ere izango dira salgai leihatilan bertan, aurrez agortzen ez badira.

Kursaalako jaialdiaren aurretik, aste guztian zehar emanaldiak izango dira Donostiako zenbait tokitan. Astelehenean portuko arranplan eskainiko da saioa; itsasoarekin harreman estua duten herrialdeetako inprobisatzaileak ariko dira. Asteartean DSS2016EUREn egoitzara mugituko da oholza eta asteazkenean, Tabakalerak hartuko du topaketa; munduko emakume inprobisatzaileen elkargunea izango da Uxue Alberdik gidatuko duen saioa. Ostegunean, Donostiako Alde

Zaharrear barrena izango da saioa, poteo formatuan, eta ostiralean ere jite bereko saioa eskainiko da Oñatiko kaleetan barrena.

Azterriko ordezkari ezberdinak ariko dira saio bakoitzean eta horietan lagun izango dituzte etxeok: Manex Agirre, Miren Amuriza, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Ane Labaka, Maialen Lujanbio, Alaia Martin eta Julio Soto. Maite Berriozabal eta Alaitz Rekondo ariko dira saioak aurkezten. Inprobisatzaileen jarduna jarraitu ahal izateko itzulpen zerbitzua eskainiko da, udaberriko saioetan egin den moduan.

Kursaalako jaialdiaren antzera, portuan eta Tabakaleran egingo diren saioetarako sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian eskura daitezke: portukoa 10 euroren truke lor daiteke eta 15 euroan Tabakalerakoa.

Jardunaldi akademikoak goizean

Arratsaldeko emanaldiak modu xeheagoan ulertzeko gakoak eskainiko dizkigute goizeko jardunaldi akademikoek. Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era, Miramar Jauregian kokatuko da *Europa bat-batean* topaketa, UPV/EHUko Uda Ikastaroen baitan.

Emanaldietan ikusiko ditugun kantu inprobisatuez gainera, adierazpide gehiago ezagutzeko aukera izango dugu, hala nola, Brasilgo ipar-ekialdean egiten dena edota Europako iparraldean kokatzen den Kareliakoa. Hitzaldiak jarraitu ahal izateko, itzulpen zerbitzua eskainiko da.

Jardunaldi akademikoetarako matrikula zabalik da uztailaren 6ra bitarte www.uik.eus atarian. Bost egunetarako 80 euroan eman daiteke izena eta eguneko 25 euroren truke egin daiteke.

Hiru geltokiko egitasmoa

Mintzola Ahozko Lantegiak eta Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuak antolatutako egitasmoa da *Europa bat-batean*. 2015eko udazkenean, 2016ko udaberrian eta urte bereko udan gauzatuko da, bidean hainbat erakunde, eragile eta boluntariorekin lan eginez.

Informazio osoa www.europabatbatean.eus atarian dago eskuragarri.



XABIER AMURIZA SARRIONANDIA
Altzo, 2016-IV-29

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Azkena dala hala ere hemen ez det itxiko aterik ez daukat noski bizi honan esteko borondaterik. Ez nuen uste azken saio hau Altzo honan izaterik. Eskerrik asko bihotz bat eta esku pareta beterik topiko handi bat dala badakit baina ez dago besterik. (bis)

“Gai zehatz eta komunak landuko dira ahozkotasanaren talaia eta munduko errealitate ezberdinetatik”

Hirugarren urtez Euskal Herriko Unibertsitateko Uda ikastaroetan izango da *Mintzola. Europa bat-batean* egitasmoarekin bat egin du aurtengo egitarau oparoak eta uztailearen 11tik 15era izango da Donostiako Miramar Jauregian.

Hitzaldi, proiektio, erakusketa eta mahai-inguruak egingo dira *Europa bat-batean*en baitako jardunaldi akademikoetan eta mundu guztiko adituek hartuko dute parte. Matrikula epea uztailearen 6ra arte dago zabalik. Karlos Aizpurua Mintzolako kideak aurtengo uda ikastaroen inguruko xehetasunak eman dizkigu.

Hirugarren urtea da Mintzolak UPV/EHUren Udako ikastaroetan parte hartzen duena, baina aurtengo jardunaldi akademikoak bereziak dira. Zer garrantzia du mundu osoko adituak bertan biltzeak?

Gutziz bakana izaten den aukera ematen digu beste kantu inprobisatuen errealitateak ezagutzeko, gure burua haietan ispiatuz ikasteko. Gainera oraingo topaketan, 2003koan ez bezala, hainbat inprobisazio mota deskribatzeaz gain, alderdi zehatzei buruz ere ariko dira: genero ikuspegia, hizkuntza gutxitu edo transmisioari buruz. Beste kantu inprobisatuetan gai jakin horiei buruz egin dituzten bide, gogoeta eta ikerketak aberasgarri zaizkigu etorkizuneko bertsolaritza eta ahozkotasa asmatzeko; bertsogintzaren zein ahozko kultur sorkuntzaren planoetan.

Hartu ez ezik, eman ere emango diegu Mintzolan egosten ari diren bertsolaritzaren ikerketen eta ikertzaileen berri. Topaketari esker bertsolaritza eta hari buruzko ikerketen berri eramango dute haien jatorri edo ikerketa erakundeetara. Ongi bidean, topaketa honek kantu inprobisatua ikertzen dutenen nazioarteko harreman sare eraginkorrago bat ekarriko du.

Zer nabarmenduko zenuke egitarau zabal eta oparo horretatik?

Batetik hori bera, egitarau zabal eta oparoa dela. Eta, bestetik, gai zehatz eta komunak jorratuko direla ahozkotasanaren talaia eta munduko errealitate ezberdinetatik.

Halako jardunaldiak bi noranzkoak izaten dira? Bertsolaritzaren berri munduan barrena zabaltzeko baliagarriak al dira horrelako ekimenak?

Dudarik gabe. Munduan ez ezik, nazioarteko komunitate zientifikoan. Eta ez bertsolaritzaren berri zabaltzeko bakarrik, euskara eta Euskal Herriaren berri hedatzeko ere bai. Neurri handi batean 2003an Bertsozale Elkartek antolatu zuen topaketari esker iritsi da bertsolaritza inoiz iritsi gabeko herrietara. Oraingo honekin ez litzateke harriztekoa atzerriko herri berrietara iritea

Kulturartea Mapa aurkeztuko da uztailean

Kulturartea Mapa datu-baseak munduko kantu inprobisatuei buruzko ezagutza eta ikerketa akademikoaren berri zabaldu nahi du. Horretarako, internet eta datu-base akademikoetako informazioa bildu da eta lan horren bidez munduan egon daitezkeen ehun kantu inprobisatuen deskribapena egin da. Eta hasiera besterik ez da; etorkizunean kantu gehiagoren berri jasotzea espero da, kantu bakoitzaren deskribapen zehatza egingo duen aditua bilatzea, eta ahalik eta artikulua akademiko gehienei buruzko informazioa eskaintzea.



Nazioarteko harreman sarea egonkortzea da topaketen helburuetako bat.//XDZ

Irailaren 17an ospatuko da Portugaleten Euskal Herriko Bertso Eskolen Eguna

Aurten goiztiar dator Bertso Eskolen Eguna: irailaren 17an izango da, Portugaleten. Irailaren hasieran eskainiko dira egitarauaren inguruko xehetasun gehiago; eta adi oportetatik bueltan, irailaren 2tik 12ra jarriko baitira eskuragai bazkaritarako txartelak www.bertsosarrerak.eus webgunean, 15 euroren truke.

Bertsotruk ekimenak segida izango du

Balorazioa ona izan du Bertsotrukek eta horren ondorioz hurrengo ikasturtean egitasmoak jarraipena izango duela erabaki dute Euskal Herriko Helduen Bertso Eskolen Batzordeko kideek. Portugaleten bertan abiatuko da bigarren edizioa.

Iaz, bertso-eskolen arteko harremanak sustatzeko helburuarekin sortu

zuen Bertsotruk ekimena batzordeak eta azaroaren 14an Agurainen ospatu zen Bertso Eskolen Egunean eman zitzaion hasiera.

Guztira, Euskal Herri osoko 26 bertso eskolak hartu dute parte eta erronka edo saio libreak izan dira, alegia, bertso-eskoletako antolatzaileak erabaki dute formatua eta tokia. Lehenengo edizio honetan 30 saio izan dira ondorengo herrietan: Etxarri-Aranatz, Alegia, Markina-Xemein, Oñati, Irun, Mungia, Iurreta, Mañaria, Barakaldo, Gasteiz, Barañain, Legorreta, Gabiria, Orio, Zumarraga, Oñati, Zarautz, Bergara, Lesaka, Aramaio, Arantza, Irun, Lasarte-Oria, Erandio, Gernika-Lumo, Hernani, Azkoitia, Ordizia eta Larrabetzu.

Ekimenaren jarraipena Bertsolaritzaren Datu-Basearen eta www.bertsoa.eus webgunearen bidez egin ahal izango da.



Bertsotruk ekimenak bigarren edizioa abiatuko du irailaren.//XDZ

Bi ikerketa kontratu eta hiru proiektu sarietarako deialdia

2013an abiatutako bideari jarraituz, aurten ere ikerketa kontraturako deialdia zabaldu dute Mintzola Ahozko Lantegiak eta UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak eta Euskara eta Ikerketa Errektoreordetzek. Orain arte ikerketa kontratu bakarrerako deialdia egin izan bada ere, aurten eskaintza zabaldu eta **bi ikerketa kontratu** izango dira esleitzeko.

Doktoregaiak hautatuko du zein ikuspegitatik aztertuko duen bertsolaritza, baina epaimahaiak kontuan izango ditu Bertsolaritzaren Ikerketa Plan Estrategikoan lehenetsitako ikerlerroak. UPV/EHUn gauzatuko diren doktorego aurreko bi kontratu dira esleitzeko direnak, urtebeterako baina hiru urte

gehiagoz luzatzeko aukerarekin.

Horrez gain, Mintzola Ahozko Lantegiak eta Laboa Katedrak 2.000 euroko **hiru proiektu sari** esleitzeko dituzte. Deialdi honetan master-amaierako lanen proiektuak lehenetsiko dira, baina beste ikerketa-lan monografiko batzuen proiektuak ere onartuko dira.

Ikerketa kontratuen deialdiak zein proiektu sarietak bertsolaritzari buruzko ikerketa zientifikoa bultzatzeko xedea dute. Batera zein bestera eskariak egiteko epea irailaren 12an amaituko da.

Informazio osoa www.mintzola.eus webgunean aurkituko duzue.



Puntua jarrita

AIMAR KARRIKA IRIBARREN

Xiberua, Lapurdi eta Baxe Nafarroako bertso eskoletako haurrei zer transmititu nahi diegun galdetzen zigun Mikel Artolak eta ni izango naiz gure lan taldeari ahotsa jarriko diona.

Bertso eskolak, euskaraz aritzeko aisialdiko ordubete eskaintzen die gure neska eta mutileri. Batzuk hizkuntza etxetik dakarten arren, askorentzako euskara hutsean eskolaz kanpo iragaiten duten ordu bakarrenetako bat izango da bertso eskolako. Horrek hizkuntzarenganako atxikimendua areagotzen du gazte horien eta euskaraz bizitzeko erabakia hartzeko lehen bultzadaxoa ere izan daiteke.

Funtsean, bertsoa den adierazpide artistikoaz goza dezaten da gure helburu nagusietako bat. Horretarako, bertso zaharrak kantatu, doinuak ikasi, errimak asmatu edo bertsoak sortzerakoan "jolasa" da etengabe nagusitzen den hitza. Azken finean, bertsoarenganako maitasuna pizteko molderik egokiena eta eraginkorrena iruditzen zaigu.

Horrez gain, norberenganako eta besteenganako errespetua izan daiteke transmititu dezakegun balorerik garrantzitsuenak. Taldekidea errespetatu, entzun eta esaten duena onartzea bezain garrantzitsua iruditzen zaigu, norberaren kantaera, izateko modua, gaitasunak eta mugak onartzea. Lagunenganako eta norberarenganako konfiantza inarrostea ezinbestekoa da eguneroko bizia begira.

Era berean, paperari edo pantailari hain loturik dauden ikasleei ahozkoaren garrantzia transmititzea ere interesgarria iruditzen zaigu, geldirik eta isilik egon behar diren gela berean hitz egitea eta kantatzea ezinbesteko bilakatuz.

90eko hamarkadan, Nafarroako Mezkiritz herrian bertsoak abantzu oihartzunik ez zuen bitartean, gazte bati bertsozaleatasunaren harra bihotz muineraino sartu zitzaion. Orduetik hona, milaka bertso entzun eta bertso saioz gozatu du. Urte hauetan guztietan bizitako une gogoangarrietako batzuk gurekin partekatzen ahalko zenituzke, Txentxo?

Koplak

Bertsojazzaren bigarren edizioa Jazzaldian

Donostiako Jazzaldiaren eta Lankuren eskutik BertsoJazzaren bigarren edizioa egingo da uztailaren 24an Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. Andoni Egaña, Miren Amuriza, Beñat Gaztelumendi eta Jon Maia bertsolariak hartuko dute parte. Gai-jartzaile lanetan Unai Elizasu arituko da. Musikariaren aldetik, berriz, Bixente Martinez izango da zuzendari musikala eta taldean izango ditu Amaur Cajaraville, Hasier Oleaga, Xabier Zeberio eta Julen Izarra musikariak.

Poto-Finixa



Bertso egitarau zabala sanferminetan

Azken urteotako bertso egitaraurik oparoena izango dute aurtengo sanferminetako festek. Egitarau ofizialaren barruan bertso jaialdi bat eta *Ez da kasualitatea* bertso emanaldia izango dira. Horrez gain, herri mugimenduaren egitarauan ere beste emanaldi batzuk izango dira: balkoitik balkoira, bertso musikatuak.... Horrela, ia egunero bertsolarietarekin lotutako emanaldiren bat izango da sanferminetan.

Kontratazioak eta informazio gehiago:

Lanku
www.lanku.com
943 26 07 55

Tablo Seta eta Fernando Jauritz

ISTORIO TRUKEA(n)

KAPUIA NABIA BATZINTZILIK

KONTU ETA KANTU

FERNANDO JAUZITEZ

PUBLIZITATEA